• ERREPORTAJEA MUSEO PIEZA BATEN HISTORIA
• GEHIGARRIA MANU SANCHEZI ELKARRIZKETA •KULTURA XIBEROA GARATUZ

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA • 2002ko apirilaren 12a/X. urtea/400. zkia



## Shantty Oria :

## "Pinturarekin bizi naiz"

# SIga

# atetxea kafetegia











Gosariak '1 1

Eguneko menuak

Enpresentzako menuak

Iaunartze eta bataioak

Asteburuko menuat







4•01l..Xixdion Kalea,1

943 74 85 31

20870 ELGOIBAR



## Txakur arriskutsuak

Azken urteotan hainbat txakurrekin gertatu diren ezbeharrak direla-eta, Goberrtuak lege dekretu berri bat atera du. Bertan, txakur arraza batzuk arriskutsu bezala kontsideratzen dira, orokorrean, erasokorrak diren txakur arrazak sartu dituzte zerrenda honetan, baina ziur naiz, kasu gehienetan txakurren erasoak arrazarekin baino, jabearen jokabidearekin zerikusi handiagoa dutela. Honetaz gain, 20 kilotik gora pisatzen duten txakur guztiak sartu dituzte arriskutsuen zerrendan. Tamaina ertain eta handiko txakur guztiak arriskutsu bihurtu dituzte dekretuz.

Dekretu honen arabera, 20 milioi pezetatako seguru bat egin behar da, jabeek test psikotekniko bat gainditu beharko dute, eta txakurrak kate motzean lotuta eramateaz gain, musukoa jantzi beharko dute. Nork pasa beharko du azterketa psikoteknikoa? Bere jaunartze egunean txakurra oparitu dioten haurrak, bere gurasoak edo kalera ateratzen duen anaia nagusiak? Benetan uste al dute jabe guztiek seguru bat ordainduko dutela beren txakurragatik? Eta nor arduratuko da dekretu hau betearazteaz? Benetan betearazi ahal balute, txakur abandonatuen kopurua izugarri handituko litzateke. Berriro ere, errugabeak izango dira kaltetuenak. Txakurrak arriskutsu bihurtzen dituzten jabeak zigortzeko dekretu bat atera beharko litzateke, kaleak garbi mantendu eta jabeak txakurren zikinkeriak jasotzera behartuko dituen dekretu bat. Dekretu bat beharrezkoa da, baina arrazoizkoa.

DIZIOU 0)19190

**"Txakurren erasoak arrazarekin baino jabearen jokabidearekin zerikusi handiagoa dute"**

**Ainhoa Andonegi**



## Abe baratzeko maria

Gure aroko 2800 urte aurretik kalamua Txinan ereiten zuten. Kalamutik ia edozer gauza egin genezake, azken finean landareen txerria baita eta guztia aprobetxa genezake. Ezagutzen den zuntzik luzeena, goxoena eta iraunkorrena da. Bertatik ateratako oihalak hobeak izateaz gain, algodoia baino produktu kimiko gutxiao behar ditu eta askoz iraunkorragoa da. Kotoiak munduan egiten diren pestizida gehienak behar ditu, beraiek direlarik lurra kutsatzen dutenak hurrengo landaketetarako baliogabetuz. Kalamuak, ordea, ez du inongo pestizidaren beharrik. Hektarea batetik, 4 hektarea piñuk edo kotoizko 2k bezainbeste zuntz, baliagarri ekoiz dezake, eta papera egurraren pulpa baino gogorragoa da eta ez du ez azido edo kloro beharrik, eta 3 aldiz gehiago birzikla genezake. Kalamuaren konglomeratua egurrarena baino bi aldiz erresistenteagoa da eta hiltzeak hobeto eusten ditu. Egurrez edo plastikoarekin eginiko edozer gauza kalamuarekin egiteko aukera dago, gainera, biodegradablea da. 1941an Henry Ford-ek automobil bat egin zuen, non bere karrozeria kalamuzkoa zen eta erabiltzen zuen erregaia baita ere kalamutik ateratakoa zen. Gaur egun herrialde industrializatu guztiek ekoizten dute kalamua.

Ezagutzen den olio koipetsu gehien dituen haziak ditu, eta beraren proteinak, landare batetan aurki genezakeen jakirik osoena bilakatzen da gizakiarentzat. Medikuntza alorrean ere argi gelditu dela gaixotasun batzuei aurre egiteko baliagarrienak direla, hala nola glaukoma, bulimia, kimioterapiak eramangarriagoa izateko, asmatikoentzat basodilatadorea baita eta bere kea ez da biriketan gelditzen.

Eta hau guztia alde jostagarria kontuan hartu gabe, je, je. Badakizu izarretan egotea ondo dagoela, baina noizean behin oinak lurrean jarri behar dira. Debekua altxa, erein eta zabaldu.

**Nestor Fuente.**

nexak ........................................................ 5
**motz motz** ........................................ 8
**gehigarria** ........................................ 13
**kiRoIAk** ........................................ 20
aGencla ........................................ 24

2002-IV-12

## Urruzunoren begi ezkutua

# Kultur errota



Gau hartan "Udaberriaren jaia" ospatzen zen tabernan. Musika lasaia, argi guztiak itzalita, sabaitik eskegitako argi-bola birakariek ehunka lore arrosa proiektatzen zituzten pertsona, pareta eta lurraren gainean. Barran bertan zegoen aulki batera jo zenuen zuzenean eta lehenengo garagardoa eskatu. Besaulkia komunera joateko besterik ez zenuen utzi. Edan eta puxika hustu. Dantza-pista neskatxa gaztez beterik zegoen. 14garren garagardorako iruditu zitzaizun, sabaiko argi-bolek, lore irudi arrosa lauak ezezik, benetako petalo koloretsuak ere barreiatzen zituztela lokaleko txoko guztietan, dirdirak neskatxen ilaietan itsatsiz, dirdirak itsatsiz, itsaz-izar koloreanitzak bailiran. Musika geroz eta ozenagoa, abestian ume batena zirudien ahotsak "...little girls can still break your heart..." (oraindik ere neskatxek bihotza hauts diezazukete) zioen lau haizetara, eta zuri, dantza-pistako neska gazteetariko edozeinek iradokizun hura baieztapen bihur zezakeela otu zitzaizun. Aingeruak lore artean dantzan; hain birjinal eta politak ezen zerutik eroriak ziruditen.

**Unai Villena.**

## ALKATEARI GUTUN IREKIA

Elgoibarko Alkate Jaun estimatua:

Artetxe auzoko bizilagun bat nauzu eta hitz hauek zuzentzen dizkizut martxoaren I4an Diario Vascon eta martxoaren 22an Barrenen agertutako berriek nigan sortutako kezka sakona erakusteko. Berri horietan, gure auzoko parkean azaleko aparkalekua egiteko asmoa (proiektua) azaltzen zen.

Honek guztiak haserrea eragin zuen ia auzokide denongan (% 99), proiektu horren kontra baikaude, aberrazio ikaragarria iruditzen zaigu-eta, Udal eta arduradun ustez demokratiko eta aurrerakoiek egiteko.

Alkate Jauna, herritarrentzako parkeak sortzeak, XXI. mendean, ildo politikoki arrazoizkoari jarraitzen dio. Ba al zenekien?

Badakizu, zuk parke horietako bat suntsitu nahi duzula?

Soberan al daude parkeak Elgoibarren? -Kontrakoa esan daitekeelakoan nago-.

Zeinek uler dezake, Jaurlaritzak 1985ean parkea sortzeko hainbeste milioi gastatzea eta zeuk eta beste arduradunek 17 urte beranduago lan hori suntsitu nahi izatea?

Orain Jaurlaritza arduratzen al da herritarren ongizateaz Udala bera baino gehiago?

Bai, badakigu aparkalekuen arazoa larria dela; baina, mesedez, arazoak konpontzeko beste modu batzuk ere badaude,

Alkate Jauna, elkarrizketa eta arrazoia esan nahi dugu.

Artetxeko bizilagunok, hitzordua eskatu genizun martxoaren 22an proiektuaren arazoei hurbilketa bat egitekotan. Zuzenean hitz egin nahi dugu zurekin, tarteko enpresarik gabe (Injelan), tarteko ikerketa tekniko hotzik gabe, kaltetuen ahotsak entzun ditzazun.

Ez aI da ba, benetako alkate baten funtzioa herritarrei entzun eta haietaz arduratzea?

Eskerrik asko:

**Jon Azurmendi Iriondo**

BARRENek ez du bere goin hortzen IRITZIA eto ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erontzukaunik Eskuntzeak ondo identifikabla egon behar dira argilaraiu ahal izateko Ez ahazlu dotu hauel jortzeo **izen.abizenak, NAN eta telefano zkia**

ASTE KARIA

BaRRen

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
tr 943 74 41 12
Publizi1a1ea:
o 943 74 37 04
Faza: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.1opagunea.conijbarren
AnorranarzaweA
Elgoibarko Izarra

LAGUMIZAILEA Elgotalko Udala ZUZEPEThRlil lon Maki Lasa KAZETARIAK Irali Agirreazaldegi, Asier Orbea Pusurrxrra Amaia FOGZIE MAKETATZAILEA Ike r Diego ADMINISTRAZICA Amaia Rodrigez Gonstrrna Jon Peli Uriguen KOLASORATZA1LEAX Ainboa Lodoso, Nestor Fuente, Pallo Mendizabal, Juan M. Eluslondo, Albeno Ansuategi, Edurne Babao, atzon Arriela, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martnez, Montse Artegi, Juanao GIXOS52a, Ainhea Andonegi, Kokoe K.E. eta Utruzuno L.T.. GIPAIMATEGIA Gedu Koop. E. TIRADA 4.025 816 LEGE GORD4ILUA SS.1.038/92 ISSN 1139-1855

EGI
ELGOIBARIO IZARRA
YOAAAA I.FI.rIA

*Elgoibarko Udalak, Eusko faurtarazako Kultura Sailak eto Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa

a'DANOBAT A.A0A.45 KHAAIAIEHIA

5>GOITI GRUPO DANOBAT

lutaRTA

## KEXAK



• Basarte auzoan bizi naiz, gaur goizean belarra mozten hari zirela ikusi dut, egia esan, behar handia baitzegoen, azkenengo hilabetean nahiko lotsagarri egon dela iruditzen zait. Kasualitatez, gaur moztu dute belarra eta ostiralean Euskal Herriko Txirindulari ltzulia Mintxetan bukatzen da. Basarten ekitaldi gehiago antolatzen hasi beharko gara ea gehiagotan mozten duten belarra. Ostiralerako dena hain polita jarri nahi dutenez , bide batez, Mekanika eta gure auzora bitartean dagoen bidea ere konpontzea ez litzateke bat ere gaizki etorriko.

## utalcult

• Mutikote andana bat hurbildu zaigu Barrenera, ikastolako irakasleei txalo egitera. Oso gustora omen daude orain arte antolatu diren mendiko irteera eta txangoekin.




LC413400 120.

**ELGOIBARKO 1ZARRA KULTUR ELKARTEAREN BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA**

**Apirilak 1 5, astelehena, arratsaldeko 1 9:00etan**
**Kultur Etxeko hitzaldi gelan**

**Gai ordena:**

1- Lehendakariaren **AGURRA**
2- 2001 eko **MEMORIA**
3-2002ko **ASMO** eta **AURREKONTUAR**
4-**GALDERA-ERANTZUNAK**

# errep Bataie. faldoi

*Pasa den martxoaren 31 n bataiatu ziren azkena jaio diren haur elgolbartarrak San Bartolome Parrokian. Don Benantzio parrokaak azaldu digunez 68 haur bataiatu ziren ioz Elgoibarren. Horrez gain, jajoberriak urtean zehar 6 txandatan bataitzen dituztela esan digu. Bataioei buruzko zenbait argibidez gain, bataioekin eriazioa duen ohitura bibri baten berri emango dizuegu aste honetako erreportajean. izan ere, Sanchez familiako 17 kide botaiatu dira bataio faldoi bera jantzita. 79 urte ditu faldoiak eta museoko pieza moduan gordetzen dute.*



*Estazio kalean atera zuten argazki hau, Kontxi Sanchez bataiatu zuten egunean*

**Familiako tradizioa**

Kontxi Sanchezek azaldu digunez, bataioa egun seinalatua izan da betidanik beraien familian. "Familiako kide guztiak, 17 oraingoz, faldoi bera jantzita bataiatu gara. Faldoia jantzita bataiatzea tradizioa bilakatu da gure familian".
Gaur egungo faldoia, berez, kapa Iuze baten zati bat dela esan digu Kontxik: "Nire aita, Santos Sanchez, Palentziako Villaramiel herrikoa da. Nire ama, Hortensia Perez, berriz, galiziarra. Elgoibarren ezagutu zuten elkar eta ezkondu egin ziren. Ni jaio nintzenean nire izeba batek eman zion faldoia nire amari, berak baitzuen gordeta".

**79 urte ditu faldoiak eta museoko pieza moduan gordetzen du Sanchez familiak.**

**79 urte aldaketarik gabe**

Jantzi honek apirilean 79 urte beteko dituela aipatu digu: "Petra Del Valle, nire aitaren amonak josi zuen faldoia, lanbidez bordatzailea baitzen. Ondorengo urte hauetan guztietan faldoiak ez du aldaketarik jasan. 79 urte pasa ondoren ezin hobeto kontserbatzen da. Nire izeba lehenik eta nire ama ondoren kontu handienaz zaintzen saiatu baitira. Bataiatzea tokatzen denean jantzi egiten dugu eta amaitzean nire amari ematen diogu faldoia. Kontu handienaz garbitu eta almidoiztatzen du eta hondatu ez dadin poltsa batean sartzen du hurrengo bataiora arte".

**Bataiatzen lehena eta azkena**

Faldoia jantzi zuen familiako lehen kidea Santos Sanchez (Kontxiren aita) izan zen eta azkena, berriz, Josu Sanchez duela hilabete gutxi batzuk.



*Faldoia jantzita bataiatu diren Sanchez familiako kide guziak ageri dira erretratuan.*

# baten histc)ria



*Petra del Valle (faldoiajosi zuena)
eta Felipe Sanchez*



*79 urte ditu faldoiak, baina berria dirudi*



*lasu Sanchez izan da faldoia jantzi duen azkena*

## BATAIOAK ELGOIBARREN

-Don Benantzio parrokoak eman diz.kigu bataioei buruzko datuak. Lehen jaio eta berehala bataiatzen ziren haurrak, baina duela 6 urte inguru urtea 6 bataio txandatan banatzen hasi ziren. 4 txanda egun seinalatu edo bereziei lotuta daude eta beste bi urtea banatzeko. Honako hauek dira bataio egunak:

r 1-Jaunaren bataioko Igandea, errege osteko lehen igandean (Urtarrilak 13)
2-Garizuma aurreko igandea (Otsailak 10)
3-Pazko igandea (Martxoak 31)
4-San Juan Bautista inguruan (Ekainak 23)
5-Udako oporren amaieran (Irailak 8)
L6-Urriko azken igandean (urriak 27)

-Azken txanda martxoaren 31n. Pazko igandean izan zen eta 4 haur bataiatu zituzten. Iaz. 68 haur bataiatu zituzten Elgoibarren. Haurrak elkarrekin bataiatzean gurasoen parte hartze handiagoa lortzen dutela aipatu digu Don Benantziok. "bataioa ez da ekintza pribatu bat izan behar, publikoa eta konpromisoa adierazten duena baizik".

**"Familiako kide guitiak, 17 opaingozy faidoi bePdina jantzita bataiatu gara"**

-Bestalde, lehen haurrei buruzko beste ikuspegi bat nagusitzen zen katolikoen artean. Bataiatu gabe hiltzen zen haurrak salbazioa lortuko ote zuen eztabaidatzen zen. Gaur egun haurrak guztiz erruszabeak diren ikuspuntua da nagusi. Jaunak maite dituelako ekartzen ditu mundura. Aldiz, gizarteak du haur jaio beni guztiek bizi baldintza duinak ez izatearen erma. Haur asko gosez hiltzen dira. nahiz eta gizarteak badituen baliabideak haur horiek salbatzeko.

-Bataioaren esanahia: Teologia aldetik Jesukristoren heriotzan eta piztueran partaide izatearekin zerikusia du. Hau da, jainkoak maitasunez sortu gaituela, gurasoen rnaitasunaren bidez, alegia. Jainkoa gure aita dela eta gu bere seme-atabak gogoratu nahi da bataioan. Bataiatua fede kristauan jaio dela onartzen da. Dena dela, gurasoei dagokien ardura da jainkoaren maitastmaren berri seme alabei helaraztea. Bataioa ez da errtto magiko bat, hasiera bat batzik, non gurasoek kristautasunaren baloreak seme-alabengan lantzeko eta helarazteko konpromisoa hartzen duten, bai giza baloreak eta bai fede baloreak.

-Uraren sinbolismoa: Bizitza berri bat hastera goazela, fedearen bizitza, sinbolizatzen du urak. Uraren bitartez jainkoaren seme-alabak direla haurrak adierazi nahi da. Aintzina gorputz osoa sanzen zuten uretan kristauek.

2002-1V-12

# Elgoibartarren % 45,5ak berba egiten du euskaraz Udaleko Euskera Batzordearen neurketa baten arabera

## Aurten erabilerak % 5,2 egin du gora, 1998ko ernaitzekin konparatuz

Udaleko Euskara Batzordeak martxoan 6.972 herritarren hizkuntza joera neurtu eta elgoibartarren %45,5ak euskaraz hitz egiten duela ikusi du. Adinaren arabera haurrak dira Elgoibarren euskara gehien erabiltzen dutenak, helduak berriz gutxien (%32,9).

Txikiteoan gorakada

Giro ezberdinei dagokienez, ikastetxetik irtetean eta jolaslekuetan erabiltzen da euskara gehien; gutxien, berriz, txikiteoan. Hala ere, aipatzekoa da azken urtean arlo honetan izandako igoera, %10ekoa gutxi gorabehera. Belaunaldi bakoitzak esparru ezberdinetan gorabehera handiak azaltzen ditu. Adibidez, ikastetxetik irtetean gazteen %53,3ak eta jolaslekuetan %54ak euskaraz egiten duen arren, gazte giroan %34,4ra jaisten da erabilera. Haurren artean % 67tik gorakoa da erabilera giro guztietan.

Elgoibartarren euskararen erabilerak 1998ra arte gora egin zuen eta 1998tik 200 lera arte piska bat jaitsi arren aurten berriz egin du gora 1998ko emaitzak hobetuz (%40,3tik %45,5era).

| | 1991 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 2000 | 2001 | 2002 N |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haurrak | %40,5 | %40,9 | %47,3 | %58,9 | %52,9 | %68,6 | %68 | %66,7 | %63 | %70,9 |
| Gazteak | %22 | %15,3 | %30 | %25,2 | %29,5 | %39,3 | %39,1 | %37,6 | %40 | %44,6 |
| Helduak | %19 | %18,7 | %23,3 | %23,4 | %23,3 | %26,7 | %29,8 | %27,6 | %25,7 | %32,9 |
| 1/4 Adinekoak | %43,8 | %44,6 | %41,5 | %39,4 | %40,8 | %35,1 | %40,6 | %33,2 | %33,2 | %40,8 .00 |

# IkastoNko Haur Hezlwniza gelak Ermuaranhiden jarriko

## Plaza Txikiko eraikuntzaren egoera eskasa dela eta hartu dute aldatzeko erabakia

Joan den martxoaren 20an Elgoibar Ikastolak urteroko Batzar Nagusia egin zuen. Bertan etorkizunerako hainbat erabaki garrantzitsu hartu zituzten. Besteak beste ,berrikuntzak egingo dituzte eraikinetan eta baita gela berriak eraiki ere, ikasle guztiak Ermuaranbide kaleko ikastolan egon daitezen.

Horretarako, Ermuaranbideko eraikinaren azpiko partea itxiko dute, eta haur hezkuntzako (2 eta 6 urte artekoak) ikasleek bertan jasoko dituzte eskolak. Bestalde bilera gela eta haurtzaindegia ere ipintzeko asmoa azaldu zuten. Baita fatxada berritzekoa ere.

Plaza Txikia

Aldaketa honen arrazoia Plaza Txikiko gelen egoera eskasa izan da. "Eraikina Udalarena denez, ez dago gure esku berrikuntzak egiten hastea. Beraz, ikasleen senideekin hitz egin eta Ermuaranbideko Ikastolak eskainiko dizkien abantailak azaldu ondoren hartu genuen berrikuntza egiteko erabakia", esan zuen Alfonso Gill6k.



451 mila euroko aurrekontua du proiektuak eta gastu honi aurre egiteko ikasle bakoitzak hileko 9 euroko kuota ordainduko du. Proiektua aurrera doa eta urte amaierarako gelak prest egotea espero dute.

2002-IV- 12

## BARRENek 400. alea kaleratu du

Inor gutxik pentsatuko zuen 1992ko abenduaren 24 hartan, lehen alea kaleratu zenean, BARREN hain gora iritsiko zenik. Piskanaka eta lan asko eginda, ordea, iritsi gara 400. alera. Hau guztia bertako langileon eginahalari esker ezezik bertako orrietan agertu zareten herritarron eta irakurleon laguntzarekin ere




lortu dugu. Aurtengo gabonetan beteko ditugu 10 urte, eta urteurren horretarako bidean 400. pausoa eman dugu. Zorionak bada BARRENen lanean aritu zaretenoi eta nola ez, herriko irakurle finoi. Aurrerantzean ere gure aldizkaria etxean gustuz jasoko duzuelakoan gaude.

## Gaur ostirala, Elgoibarren hasiko da *Plazad GazteUera* bertso txapelketa



Bertsolaritza sustatzeko eta bertsolari gazteei plaza berriak eskaintzeko asmoz, Debabarreneko hainbat gaztetxetan bertso txapelketa egingo da. Lehen kanporaketa gaur, ostirala, gaueko 22:30ean izango da Elgoibarko Gaztetxean. Aurrez afaria izango da 21:00etan. Elgoibarren parte hartuko duten bertsolariak honako hauek dira: Xabier Astigarraga, Urki Bi1bao, Peru Magdalena(argazkian), Gorka Lazkano, Julen Pradera eta Julen Zelaieta. Ondorengo kanporaketak Deba eta Mendaroko Gaztetxeetan jokatuko dira eta puntuaziorik altuena lortzen dutenek Mutrikuko finalean hartuko dute parte.

## Josu Zubiaurre ETB 2ko ullate el boten saioan agertuko da

Azken aldian maiz ikusi izan dugu Josu Zubiaurre elgoibartarra hainbat telebista saiotan. Pare bat aldiz izan da "Esta es mi gente" programan, ETB 1eko "Bexamela" saio berrian ere ikusi ahal izan genuen eta hemendik gutxira "Date el bote" lehiaketan agertuko da. Jorge Fernandezek aurkezten duen saioko grabaketa egina dute jadanik eta maiatzaren 6tik 10era arteko astean izango da emisioa. Hala ere, Josuk lehiaketa irabazi duen ala ez jakiteko programa ikusi beharko dugu, ez baitigu azken emaitzarik esan.



## Batasuna Udal arrekontuen aurka

Barrenen azken alean eman genizuen Udal aurrekontuen berri eta baita Batasuna alderdiak aurka botatu zuela esan ere. Aste honetan prentsaurrekoan azaldu dute horren arrazoia: "Udalak ez du aurrekontuen linea hasieratik markatu eta Alkatetzan erabaki da dena. Bestalde, aurtengo aurrekontuak egiteko metodo berria planteatu bazen ere, batzordeetan ez da eztabaidatu eta Batasuna izan da proposamenak aurkeztu dituen alderdi bakarra". Aurrekontuen inguruan zaIantza eta galdera ugari dituztela adierazi zuten. Besteak beste, pertsonal sailean izandako igoera, mankomunitateari iaz baino askoz diru gutxiago ematea...





*ESKERTZA*

*2002ko apirilaren lean, 64 urte zituela hil zen*

*SANTIAGO ZIOARRAGA LETE*

*"IPINTZA"ren sendiak,*

*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Hainbat txakurrekin izandako ezbeharrak direla eta Gobernuak lege dekretu herri hat atera du

# TXAKURRAK KATE1 LOTUTA ERAMAN BEHAR AL KALEAN?



### JOSU ITURBE
43 urte, delineantea

Txakurren tokia ez da kalea, mendia edo baserriak baizik. Baina kalean egotekotan egokia iruditzen zait lotuta eramatea. Bestela, dauden arriskuak ikusita horrelako legeak egoteari ondo deritzot.

### AMAIA UGARTEBURU
37 urte, etxekoandrea

Bai, klasian arabera ere bada hori ze batzuk ez dabe hainka eingo. Baina umiakin noianian eta norberak ere batzutan bildurra eukitzen dau.





### PASCUAL NIOLINA
56 urte, metalurgikoa

Noski baietz, txakur mota batzuk bai behintzat. Ni txakur jabea naiz eta txikia denez ez dut lotuta eramaten, baina handiak eta arriskutsuak lotu egin behar dira.

### ISABEL SANCHEZ
64 urte, etxekoandrea

Nik solte eramaten dut, ondo hezi dut eta **ez** dut uste inori haginka egingo dionik, kalean kaka eginez gero ere batzen dut. Hala ere, arriskutsua balitz lotuta eramango nuke.





### GLORIA RUIZ DE GAUNA
52 urte, dendaria

Kalean bai, nik nire txakurra ezagutzen dut, baina besteenek beldurra eta errespetua ematen didate. Beraz, gainontzeko jendeari zor zaion errespetuarengatik lotuta eraman behar ditugu.

### NRISTOBAL AGINRE
32 urte, estanpadorea

Txakurrak bihar dabana katia baino jabe ona da, eta txakurrari onena eman bihar jako, hola ez dalako problemarik egoten. Ni txakurra eukitxakua naiz eta atzetik segitzen zian beti.




JOSE,4(ttiji'a1
(Txema)

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.**
**Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab_ jartzen dugu.**

San Bartolorne, 26-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



I riondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

# no lci ALDATU diren gauzak!



**1979** ingurukoa dugu honako argazki hau. Bernardo Ezenarro kalea da Bilbotik Donostiarako trenbidearen ezker aldean ageri zaiguna. San Rokeko bailara asko hazten ari zela eta, derrigorrezkotzat jo zen errepidea egitea bertaraino. Zubia eraikitzeko lanen hasiera ikusi ahal da erretratuan.



**2002.** Oso onuragarria izan da, nonbait, errepidea herriarentzat. Gaur egun, San Roken bertan baitira, besteak beste, Kiroldegia, IMH, eta Mintxetarako bidea



*URTEURRENA*

*2001ko apirilaren 13an, 48 urte zituela hil zen*

*FC0 jAVIER ZARZUELO ALTUNAren orotmenez,*

*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 19:00etan.*

*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik*





*ESKERTZA*

*2001ko apirilaren 5ean, 49 urte zituela hil zen*

*IÑAKI LARIZ IRIONDOren sendiak,*

*aldez aurretik bihotzez ESKERTZEN du apirilaren14an, igandea, Mendaroko Azpilikoetan 11:00etan izango den mezara agertu izana.*



# 1000 ikasle matrikulatu dira 2002/2003 ikasturtean Elgoibarko ikastetxeetan

## Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko datuak dira honakoak

*Urtero bezala matrikulazio kanpaina egin osteon ikcrstetxeetcrtik jaso ditugu ikasle kopurua jakitera ematen duten datuak. Honela, herriko ikastetxeetan izena emon duten ikasleen kopurua 1.000tik gorakoa dela ikusten dugu. lazko datuekin konparatuz, neurri txiki batean bada ere ikasle kopuruak behera egin du, 10 ikasle gutxiago daude, hain zuzen ere.*

### Pilar Ikastextea

| HAUR HEZKUNTZA | IKASLEAK |
|---|---|
| HH2 | 15 |
| HH3 | 5 |
| HH4 | 20 |
| HH5 | 13 |
| **Lehen Hezkuntza Ikasleak** | |
| LH1 | 19 |
| LH2 | 17 |
| LH3 | 20 |
| LH4 | 18 |
| LH5 | 24 |
| LH6 | 19 |
| **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** | |
| DBH1 | 28 |
| DBH2 | 28 |
| DBH3 | 30 |
| DBH4 | 18 |
| **(GUZTIRA:** 274 ) | |

### Ikastola

| HAUR HEZKUNTZA | IKASLEAK |
|---|---|
| HH2 | 31 |
| HH3 | 25 |
| HH4 | 36 |
| HH5 | 40 |
| Lehen Hezkuntza | |
| LH1 | 26 |
| LH2 | 33 |
| LH3 | 24 |
| LH4 | 28 |
| LH5 | 33 |
| LH6 | 40 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | |
| DBH1 | 33 |
| DBH2 | 39 |
| DBH3 | 48 |
| DBH4 | 36 |
| **(GUZTIRA: 472 )** | |

### Herri Eskola

| HAUR HEZKUNTZA | IKASLEAK |
|---|---|
| HH2 | 23 |
| HH3 | 43 |
| HH4 | 38 |
| HH5 | 19 |
| **Lehen Hezkuntza Ikasleak** | |
| LH1 | 29 |
| LH2 | 20 |
| LH3 | 25 |
| LH4 | 13 |
| LH5 | 28 |
| LH6 | 22 |
| **GUZTIRA 260** | |

# 100 lagunek hartu dute parte Atxutxiamaika eta GAZ-T aisialdi taldeek Pazko asterako antolatutako ekintzetan



**Pazkoa** astea haur eta gazteek jai izaten dutela aprobetxatuz, Atxutxiamaika eta GAZ-T aisialdi taldeek hainbat ekintza antolatu dituzte. Antolatzaileen esanetan harrera one izan da guztira 100 lagunek hartu baitute parte. Haur Hezkuntzako umeak udaleku irekietan 4 egunez jolasak, kantuak eta beste hainbat ekintza egin dituzte, LH 1, 2 eta 3. mailako ikasleek Txuri Urdinera egin zuten irteera eta LH 4, 5 eta 6. Mailakoek, berriz, Aubixan pasa dituzte 4 egun. Azkenik GAZ-T taldearekin DBH 1, 2,eta 3. Mailako gazteak Getariako Askizu aterpetxean izan dira.

2002ko apinia/X urtea/400 zkio

# BARREN
ASTEKARIA

## elkarrizketa



“GIZAKIAK HEGAN EGITEN DUENETIK AIREAN BAINO LURREAN PILOTU GEHIAGO DAUDEN LEHEN UNEA DELA USTE DUT”

Manu Sanchez

# Manu Sanchez

''14 nituenet

*MANU SANCHEZ (41 URTE) ZARAGOZAN JAIOA DA, BAINA 83TIK EUSKAL HERRIAN BIZI DA. EGUN LANGABEZIAN DAGOEN ARREN, HEGAZKIN PILOTUA DA. 83AN PILOTU PRIBATU TITULOA ESKURATU OSTEAN, ESTATU BATUETAN JARRAITU ZITUEN IKASKETAK ETA ZENBAIT KONPAINIARENTZAT ERE EGIN DU LAN. UNE HONETAN PLAZER BIDAIAK ESKAINTZEN DITU 4 PERTSONENTZAKO ABIONETA TXIKI BATEAN.*



Noiz eta zergatik erabaki zenuen hegazkin pilotu izatea? 14 urte nituenetik izan nahi nuen pilotu. Gogoan dut nola joan nintzen Iagun batekin Iberiako billeteak saltzen dituzten leihatilara pilotu izateko zer egin behar zen galdezka. BestaIde, betidanik izan dut gauzak mugiarazteko irrika. Kamioiak gidatzeko gida baimen guztiak ditut, adibidez.

Zer sentitu zenuen hegazkineko aginteak lehen aldiz hartu zenituenean? Aginteak nire kontrolpean izatea baino gehiago, hor goian, airean, egotea eta behean dena txiki ikustea izan zen gehien gustatu zitzaidan sentsazioa.

Noiz atera zenuen pilotu tituloa? 1986. urtetik naiz pilotu pribatua.

Non atera zenuen? Hemen ez zegoen eskolarik eta Estatu Batuetara joan nintzen. Lehenik Texasera, Dallas ondoan dagoen Fortworthera. 9 hilabete egin nituen bertan eta gero beste 2 hilabete Oklahoman. Handik Kubara joan nintzen bertako Aerocaribian konpainian lan egitera. Hegan esperientzia lortu ostean, New Yorken garraiolari tituloa atera nuen.

Nolako esperientzia izan zen Kubakoa? Oso ona. Aerocaribian konpainiarentzat urte eta erdiz lan egin nuen. Kuban eta karibe guztitik egiten nuen hegan Antonov 26 hegazkin errusiar batean. 26 bidaiarirentzat egokitutako 24 tonako karga hegazkin zahar bat pilotatzen nuen.

Gidatzeko era berezia eskatzen al dute hegazkinok? Hegazkin "prehistorikoak" dira, teknologia digitalik gabekoak. Hala ere, esperientzia oso aberasgarria dela iruditzen zait. PlIotu hasiberrientzat eskola ezin hobeak izan daitezke, aginte eta botoi mordoa baitituzte eta pilotu gazte askok ez baitute horrelako hegazkinik ezagutuko.

Airean egiten diren ordu kopuruak izaten du garrantzia pilotu baten curriculunberako, ezta? Bai. Lehendabizi pilotu pribatu tituloa ateratzen da. Gutxienez 40 ordu airean egitea beharrezkoa da. Ondoren, pilotu komertzial tituloa es-

# nahi izan dut hegazkin pilotu izan"





kuratzen da, 250 aire ordu sartuak edukitzea eskatzen dute. 1.500 orduko aire esperientziarekin, berriz, garraio tituloa eskuratzen da. Titulo honekin hegazkin konpainietan Ian egin daiteke komandante gisa.

Gaur egun zer egin behar luke lotu izan nahi duen pertsona batek? 3 bide daude tituloa ateratzeko; eskola pribatu batean, militar bidetik lizentziatu ondoren zibilera pasatuz, edo aeronautica karrera eginez. Azken hau Madrileko Unibertsitate Autonomoan ikasten da eta 5 urteko iraupena du. Ingeniari aeronautiko, kontrolatzaile eta pilotu izateko irakasgai komunak dituztela uste dut.

Nolakoak izaten dira klaseak? Eskola pribatuetan ikasle bakoitzak instruktore bat izaten du. Hegazkinaren funtzionamendua irakasten dizute lehenik; hau da, zergatik eta nola egiten duen hegan, zein aginte erabili behar diren jaisteko, birak egiteko, potentzia nola neurtu, datu meteorologikoak nola interpretatu... Teorian ikasitakoa egun berean jartzen da praktikan ia hasieratik. Bide batez, irakasleek ikasleak airean nola molDatzen diren ikusteko aukera izaten dute. Bizi osoan pilotu izatea amesten- duten pertsona batzuk lehen aldiz hegan egitean panikoa sentitu edo mareatu eta pilotu izateko ilusioak zapuzten zaizkie. Ez da ohikona hala ere, %5ari bakarrik gertatzen zaio.

Pilotu izateko klaseak ez dira batere merkeak izaten, ezta? Ez, titulo guztiak ateratzeak 8 edo 9 milioiko kostua izan dezake. Pilotu pribatu tituloa ateratzeak, adibidez, ia milioi bat pezeta balio du.

Zaila al da hegazkin konpainia handi bateko pilotu izatera iristea?
Berez ez da zaila, baina zorte piska bat eta entxuferen bat edukitzea korneni da. Konpainia handi hauetan dauden pilotu gehienak errekomendatuta sartu dira.

**"ANTONOV ERRUSIAR REGAZKIN BAT PILOTATU NUEN URTE ETA ERDIZ AEROCARIBIAN KUBAKO KONPAINIAN"**

Langabezia altua al dago pilotuen artean? Pidotuak baino plaza gutxiago daude, Gizakiak hegan egiten duenetik airean baino lurrean pilotu gehiago dauden lehen unea dela uste dut. Iberiak flota berritu zuenean "boom" antzeko bat egon zen eta 500 pilotu inguru kontratatu zituen, baina gaur egun egoera ez dago oso ondo, batez ere irailaren llko atentatuen ostean.

Zein da pilotu komertzial baten lana? Aireratzea, lur hartzea eta dena ondo dagoela egiaztatzea. Auffez erabakita dagoen norabidea jarraitu behar da eta deiak egin eta jaso hegazkinaren kokapenaren berri emateko. Zerua errepide imaginarioz beteta dago eta hegazkin bakoitzak jarraitu beharreko bere bidea dauka. Aireko bide batek 10 miliako zabalera izaten du. Atlantikoan, adibidez, hegazkinak altuera optimo bat dauka, pisuaren, erregai kopuruaren eta tenperaturaren arabera, 35,000-37.000 oinetan (13-14 kilometro) hain zuzen ere. Ingeniariek kalkulatuta dago hau guztia.

Zein hegazkin gustatuko litzaizuke pilotatzea? Boeing 767 bat. New York-eko dorre bikien aurka jo zutenak modukoa.

Pilotua izanik irailaren 1 lko atentaua modu berezian bizi izan al zenuen? Ez pentsa. Hegazkinak baino gehiago dorre bikiak moduko bi etxe puska nola jausi ziren ikusteak gehiago harritu ninduen, batez ere ezagutzen nituelako. Dena dela ziur nago konpainiako pilotuak ez zeudela aginduetara. Terroristak pilotu pribatuak izango ziren eta entrenamendu berezia jasoko zuten. Dorreen kontra jotzea eta hegazkina jaitsieraztea ez dira edozeinek egiteko modukoak.

# atzera begir

## pausoz pauso



Manu Sanchezek 14 urte zituenetik nahi izan du pilotu izan eta 1986an lortu zuen bere ametsa, pilotu pribatu tituloa eskuratu baitzuen. Ondoren gainontzeko titulloak atera zituen Estatu Batuetan.



Kubako Aerocaribian konpainiarentzat urte eta erdiz egin zuen lan. Antonov 26 hegazkin zahar bat
tzen zuen. 540 km. orduko kruzero abiadura hartzen zuen.



Manu pilotu akrobatikoa ere bada. 5 maila daude eta lehen biak atereak ditu, oinarrizkoa eta kirol mailakoa, alegia. Lituanian akrobazia ikastaroak ere egin izan ditu. Bertan ezagutu zuen inunduko txapeiduna.

## Errekreo hegaldiak

**-Errekreo hegaldiak eskaintzen dituzu? Bai.** 4 pertsonentzako abioneta txiki batean Euskal Herria airetik ezagutzeko aukera eskaintzen diot nahi duenari. Bizkaiko aeroklubeko bazkidea naiz eta hegazkinak orduka alokatzeko aukera daukat. Nik ez diet bezeroei ezer kobratzen, hegaldia kostatzen zaidana bakarrik, hau da, niri kobratzen didatena; erregaia, segurua eta lur hartzea.

**-Zergatik egiten duzu, beraz?** Orduak sartzea komeni zaidalako. Langabezian nago ordea, eta bakarrik eginez gero garesti ateratzen zait. Badaude lan hau egiten duten enpresak, baina nik lagun eta ezagunak eramaten ditut. Inork joatea nahiko balu nirekin harremanetan jartzea baino ez du.

**-Zein da prezioa?** 20.000 edo 22.000 pta. orduko hegazkinaren arabera.

**-Nola baloratzen dute esperientzia zurekin li direnek?** Inoiz hegan egin gabeko jendea izaten da gehienetan eta oso gustura ateratzen dira.



Margari izeneko 72 urteko emakume batetaz oroitzen naiz. Semearen urtehetetze oparia izan zen. Sondikatik abiatu eta kostaldetik etorri ginen Debaraino. Deba ibaian gora Elgoibarreraino iritsi ginen eta g,ero Azpeitiruntz jo. Hanclik Bergarara eta Elgoibartik berriz ere Sondikara Bizkaiko kostaldetik.

# Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 12 Eb<eberria (Sarila Ana kalean) | Etxeberria |
| 13 Etxeberria (Errosario kalecm) | Fernandez |
| 14 Fernandez | Fernandez |
| 15 Yudego | Yudego |
| 16 Zabaieta | Zabaleta |
| 17 Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

111AÑEZ, Rekalde, 1 Saraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABAIITA, Kafebarren, 9 Saraluze.
Tel: 943 75 13 84
'eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

**14 igandea Ibarrenea**

## Euskorren TRE... EuskoTren ,1TOBLI5k11

DONOSTIA-BILBO
Eganero
Donostia 1...vatA 5.45 06.45,.. 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
• jaieguneran 7.45ean hasiko dira eta orduem egongo dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbc) 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08,23... 21.23
• jaiegunemn 8.00etaa hasiko dira eta orduen: egongo dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07 25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25. 21.25

## PES,AUTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 0140 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | GD.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA•EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Efgeibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 01.00 | 02.30 | 04.30 | 06.00 |
| tlgoihar | 01.10 | 02.40 | 04.40 | 06.10 |
| Defm | 01.20 | 02.50 | 04.50 | 06.20 |
| Mutriku | 01.25 | 02.55 | 04.55 | 06.25 |

MUTRIKU-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mutriku | 00.00 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Deha | 00.05 | 01.35 | 03.35 | 05.35 |
| Elgoibar | 00.15 | 01.45 | 03.45 | 05,45 |
| Eibar | 00.25 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

EIBAR-AZPEITIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eibar | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Elgoibar | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Azkoitia | 01.50 | 03.50 | 05.50 |
| Azpenia | 01.55 | 03 55 | 05.55 |

AZPEMA-EIBAR

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azpeitia | 00.30 | 02.30 | 04.30 |
| Azkoitia | 00.35 | 02.35 | 04.35 |
| Elgoibar | 00.45 | 02.45 | 04.45 |
| Eibar | 00.55 | 02.55 | 04.55 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.*

# 151 INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

| | |
|---|---|
| Larrialdiak | 112 |
| Ambulatorioa | 943 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideal | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |

### UDALA

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Ongizate zerbilzua | 943 74 10 08 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| GIG (Gazle Infonnazio Gunea) | 943 74 14 61 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Udal Kirol Patronalua | 943 74 44 15 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Libu rutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea | 943 74 35 72 |

### ADINEKOEN ETXEAK

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

### IKASTETXEAK

| | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskota | 943 74 08 79 |
| I.M.H | 943 74 41 32 |
| Institutua | |
| Arreiturre | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

### KOMUNIKABIDEAK

| | |
|---|---|
| BARREN | 943 74 41 12 |
| El Diario Vasco | 943 74 40 73 |
| El Correo Español | 943 74 10 82 |
| Zazpiki irratia | 943 74 34 74 |
| Egunkaria | 943 30 02 22 |
| Gara | 943 31 69 99 |

## Shanty Oria :

# "Pinturarekin 3izi naiz ez ointurarentzatij

*Elgoibartarra da jaiotzez, gaur egun Azkoitin bizi bada ere. Gure artera, Elgoibarrera egunero etortzen da ia-nera, baina gaur motibo berezi batek ekarri du BARRE-Neko orrietara. Margolaria da Shaniy Oria eta bere Icr-nak ikusgai jarri ditu egunoton Kulfur Etxeko erakuske-ta gelan. Hitz houek bera ezagutzeko eta erakusketara oraindik azaldu ez direnei gonbitea luzatzeko aprobe-txatuko difugu.*



***Shanty Oriak herritarrentzako moduko erakusketa egin du***

• Noiztik ari zara pinturan?

Txikitatik. Eskola Nazionaletan ibili nintzenean arbelera ateratzen ninduten marraztera: Jesukristo sandaliekin... Gero, soldadutza ostean, piskanaka hasi nintzen marrazten eta nire kabuz ikasi dut.

• Beraz, autodidakta zarela esan genezake?

Ez, ez duk autodidakta hitza batere gogoko. Beti ikasten da zerbait gauza ezberdinei begira. Edozer izan daiteke niretzat irakasgai, nahigabe bada ere. Obserbazioa oso garrantzitsua da, beste inoren menpe egon gabe ikusten den horretatik jatea, horretarako autodisziplinak zeresan handia du.

111 Zein pintura mota egiten duzu?

Ikusten dudana eta hori abstrakziora iritsi gabe egiteko dudan ahalmen moduan definituko nuke. Ez da erabateko definizioa, espresioa baizik.

• Zein material erabiltzen dituzu?

Pinturak Bergaran erositako lientzoen gainean oleoz egiten ditut. Noski, aurrez marrazkia egitea da oinarrizkoena. Bestalde, eskultura ere egiten dut eta horretarako buztina eta brontzea erabiltzen ditut.

• Zein dira gehien lantzen dituzun gaiak?

Denetariko gaiak ikutzen ditut, gai errazak, alaiak zein tristeak: Paisajeak, imajinatutako pertsonajeak, otoitza, gerra... Sarritan argazkiak egiten ditut eta horiek erreferentziatzat hartuta, hauetatik pintatzen ditut koadroak.

• Elgoibarko erakusketara datorrenak zer aurkituko du?

Nire koadroak eta eskulturak, besterik gabe. Herriko jendearentzako moduko erakusketa bat da hau. Ez da Guggenheim museoa, ezta gutxiagorik ere, hara jende asko joaten da eta nire ustez intelektualentzako da hura. Hona datorrenak koadroak zein eskulturak ikusiko ditu eta bakoitzak norbere barruan ereindakoaren arabera gauza bat edo beste sentituko du.

**"Obserbazioa oso garrantzitsua da, edozer izan daiteke niretzat irakasgai"**

111 Bizi al daiteke pinturatik?

Niretzat pintura afizio bat da. Pinturarekin bizi naiz ez pinturarentzat. Oso zaila da pinturatik bizitzea margolaria oso ezaguna ez bada behintzat. Gainera, bakoitzak erabaki behar du dirua zertan gastatu, baina jendeak artea garesti saltzen dela dio eta horretan apenas inbertitzen du. Ez da konturatzen orduka kobratuz gero, beste edozein gremiotako langileek baino gutxiago kobratzen dela. Erakusketa bat montatzeak zenbateko kostua duen kontuan hartuta erakundeek ematen dituzten laguntzak ere ez dira nahikoak.

■ **Koadro bat utziko duzu opari herrian, ezta?**

Bai, lehen ere eman izan dut eta San Lazaro Egoitzakoei emango diet opari nire koadro bat. Lienzo bezala ate bat erabili dut, alde batean Elgoibarko Parrokiako kanpandorrea dago eta bestean aurpegi pertsonaje batzuk.

Xiberoa garatzen egitasmoa

# "Elgoibarren 10,000 euro biidu nahi ditugu"

## Zuberoako biztanle beherakadari aurre egiteko plana euskaldunon auzolanaz bultzatu nahi da




Zuberoan azken urteotan izan den biztanle beherakada dela eta, zuberotarrek horri aurre egiteko plana jarri dute martxan. Udalbiltzak asmoa euskaldun guztion auzolanaz bultzatu nahi du eta elkartasunerako Xiberoa garatzen egitasmoa jarri da martxan. Elgoibarren egitasmoak sustengu taldea du hiru azpitalde osatu dituzte: Informazirako, diruzaintzarako eta kultur arlorako.

### JUANJO ETXEBERRIA
**Diruzaintza**



**Elgoibarren zenbat diru biltzeko asmoa duzue?**
Euskal Herri osoan 1.000.000 euro jasotzea da helburua eta Elgoibarren 10.000 euro batu nahi ditugu. Kopurua kalkulatzeko boto abertzaleen zenbatekoa hartu dugu kontuan.
**Dirua biltzeko zer egingo duzue?**
Hasteko, gaur, ostirala, Euskadiko Txirrindulari Itzulia Elgoibarren amaitu dela aprobetxatuz, barra bat jarri dugu jendea girotzeko eta dirua Iortzeko. Gerora, rifak salduko ditugu
**Ekarpenak egiteko aukera ere egongo da, ezta?**
Bai, txartel batzuk betez 250 euroko ekarpenak egin daitezke. Hau da, akzionista izatea moduan. Ekarpen hauek bakarka zein taldeka egin daitezke. Aurrerago kontu korronte zenbaki bat jarriko dugu norbaitek beste diru kopuru bat eman nahiko balu.

### ANDONI SEGUNDO
**Kultura**



**Zein da zuen taldearen helburua?**
Herrian Xiberoa Garatzen egitasmoaren berri ematea eta Iparraldeko probintzia hori azken aldian sufritzen ari den gainbehera dela-eta sentsibilizatzea.
**Zein erantzun espero duzue herritarrengandik?**
Hasi berriak gara lanean eta ez dakigu nolako harrera izango dugun. Hala ere, hasieran konformatuko ginake guregana hurbildu eta ahal duten laguntza emango balute, diruz zein pertsonak talderen batean inplikatuz.
**Epe motzera zein ekintza egingo duzue?**
Gure taldeak, bihar, zapatuan, mahai informatibo bat jarriko du Plaza Handian, gerturatzen direnei Xiberoa Garatzen zer den azaltzeko, eta hauek ahal den neurrian laguntza ematera bultzatzeko.

### JOKIN MARTINEZ
**Informazioa**



**Herritarren inplikazioa lortu nahi du zuen taldeak.**
Bai, herriko kolektiboekin urte osoko kultura plangintza egitea da gure asmoa. Maiztasun batekin Xiberoarekin zerikusia duten ekitaldiak antolatzea nahi dugu.
**Xiberoako kultura erakutsi nahi duzue.**
Interkanbio kulturala bultzatu nahi dugu, Xiberoa Hegoaldera hurbiltzeko eta bertako ohiturak ezagutarazteko. Horretarako baliteke eskolen bidez elkartruke harremanak martxan jartzea.
**Zein motako ekintza kulturalak egingo dituzue?**
Oraindik zehaztu gabe daude, baina ideietako bat hilabete amaierako ferian Xiberoako artisau lanak erakusgai zein salgai jartzea da. Bestalde, edozeinek honen inguruko ideiarik izango balu prest gaude jasotzeko.

# Goenaga eta Gabilondo pilotariek Debarroko txapelketa irabazi dute kadete mallan

## 22 eta 20 irabazi zuten finala Eskoriatzako bikotearen aurka

Lagunak Pilota Eskolako Goenaga eta Iriondo pilotariek Debarroko txapelketa irabazi dute. Pasa den apirilaren 7an jokatu zuten final handia Bergarako pilotalekuan. Azkarate eta Axpe Eskoriatzako bikoteari 22 eta 20 irabazi eta gero jantzi zituzten merezitako txapelak. Honakoa aurten jokatu duten bigarren finala izan da Goenaga eta Iriondorentzat. Euskal Herriko Liga txapelketan finalera ailegatu ziren, baina ezin izan zuten irabazi. Oraingoan, ordea, ez diote bigarren aukera honi alde egiten laga. Finalerdietako bi partidak aise irabazi zituzten eta finala orekatuagoa izan bazen ere, txapeldun izatea lortu dute.



Hala ere, ez dira Debarroko txapelketan ongi aritu diren pilotari elgoibartar bakarrak izan. Jubenil mailako bikoteak, Ulazia eta Loiolak, alegia, finalerdietara ailegatzea lortu baitzuen. Finalerdietako partida bat 22 eta 21 irabazi zuten Eskoriatzako Abarrategi eta Errarteren aurka, baina beste partida 22 eta 14 galdu zutenez, tanteoaren erruz geratu ziren kanpoan.

# Gaur Elgoibar eskubaloi taldeak jubenil mailako Federazio trofeoa irabazi du

Gaur Elgoibar eskubaloi taldeak jubenil mailako Federazio trofeoa irabazi du. Leizaran talde nafarra eta Donostiako Loyola eskubaloi taldea izan dituzte aurkari elgoibartarrek eta bien aurkako partiduak irabazi ostean lortu dute trofeoa etxera ekartzea. Pasa den zapatuan, hilaren 6an, lortu zuten garaipen erabakiorra Loyolaren aurka Donostian jokatutako partidan. Azken emaitza 20 eta 22 izan zen Jose Periarandak entrenatzen dituen mutilen alde.

**Taldekideak goiko ilaran ezkerretik eskuinera:**
Agirre, Menbri, Ajuri, Armendia, Aitzol, Ioritz eta Jose Peñaranda (Entrenatzailea)
**Beheko ilaran:** Rosario, Ibon, Aian, Luis, Iker eta Josu.



# Kalean dira Kirola euskaraz fitxa didaktiko berriall

## Danel Fernandez de Jauregi elgoibartarrak prestatu ditu Prestakuntza Fisikoko fitxak

Pasa den martxoaren 20an aurkeztu zituzten euskarazko kirol fitxa didaktiko berriak Elgetako Udaletxean. Debagoieneko Kirol eta Euskara zerbitzuen Kirola Euskaraz programaren barruan aurkeztu zituzten fitxa berri hauek. Aerobikeko eta Prestaketa Fisikoko fitxak izan dira kaleratzen azkenak. Prestaketa Fisikoko fitxen egilea Danel Fernanndez de Jauregi, IVEF-en lizentziatutako elgoibartarra izan da. Aerobiceko fitxen egileak, berriz, SiIvia Arribas, Leire Cano eta Onintza Garcia donostiarrak izan dira.



# 11X. Haur Krosa domekan, hilaren 14an, izango da

Elgoibarko Ikastolak antolatzen duen Haur Krosaren 9. edizioak parte hartze handia izango du aurten ere, Mendaroko eta Elgoibarko 429 haurrek izena eman baitute. Apirilaren 14an, domekan, Plaza Handitik hasiko dira lasterketa guztiak eta amaiera ere bertan izango dute. Lehen lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da eta azkena 11 :45ean. 14 lasterketa izango dira guztira eta azkena amaitu bezain pronto sari banaketa ekitaldiari ekingo zaio. Partaide guztiek domina jasoko dute eta adin bakoitzeko lehen neskak eta lehen mutilak, trofeoa.



# Egoitz Morak zilarrezko domina irabazi zuen Espainiako Lutxa Libre Txapeiketan Bartzelonan



Egoitz Mora elgoibartarrak beste domina bat gehiago dauka bere kolekzioari gehitzeko. Oraingoan ez du judoan lortu, lutxa librean baizik. Bartzelonan jokatu zen Espainiako Lutxa Libre Txapelketa eta Egoitzen modalitatea ez izan arren aixe garaitu zituen arerioak finalera iritsi arte. Finalean, ordea, ezin izan zion Balentziako ordezkariari irabazi, gaur egungo Espainiako Lutxa Libre Txapeldunari, alegia. Gogotsu borrokatu ziren, baina aurkariaren esperientzia handiagoa erabakigarria izan zen.

Bestalde, Zuriñe Polo judokak kadete mailako Euskadiko Judo Txapelketa irabazi zuen. Mutrikun jokatu zen txapelketa eta Zuriñe 44 kiloz azpiko kategorian izan zen txapeldun.

## EMAITZAK

### Futbola
Zarauz 1 - Haundi 0 (Pref,)

### Esku pilota
DEBAHROKO TXAPELKETA
FINALA
Azkarate/Azpe 20 (Eskoriatza) - Iriondo/Goenaga 22 (Lagunak)

## Idarraga kafeak V. Saria

### HAUNDIko jokalari erregularrena

| Jokalaria | Puntuak |
|---|---|
| 1 -Salaberria | **98** |
| 2-Joseba Igartua | 90 |
| 3-Loren | 59 |
| 4-Navarrete | 54 |
| 5-Leonardo | 50 |
| 6-Elkaro | 45 |
| 7-Ugalde | 44 |
| 8-Txasio | 39 |
| 9-Gurrffixaga | 27 |
| 1 0-Guinea | 23 |
| 11-Goikoetxea | 13 |
| 12-Caro | 10 |
| 13-Azpiroz | 7 |
| 14-Bravo | 6 |
| 15-Jabi | 5 |
| 1 6-Jagoba | 3 |
| 17-Aristondo | 2 |
| 18-Zubiaurre | 2 |
| 1 9-Mujika | 2 |
| 20-Toni | |

## AGENDA

**Futbola,** Mintxetan
**Zapatua, 13**
**16:30** Elgoibar "B" - Intxurre (1. erreg.)
**18:15** Elgoibar- Luberri (Jub.)
**Domekia, 14**
**12:00** Elgoibar Eibartarrak (Kad.)
**16:30** Elgoibar - Intxaurdi (Nesk.)

**ESKUBALOIA,** Kiroldegian
Zapatua, 13
16:30 Pagoaga Elg. - Zarauz

**ARETO FUTBOLA,** kiroldegian
Zapatua, **13**
16:30 Samsung Elg. - Auto Eskola Record (Euskal Liga)
Domekia,14
12:30 Meka lnsti Laskorain (1. maila)

# merkatu txikia

2002-IV- 12

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

*Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek, Berrizen kokatutako lanpostu baterako mekanikaria behar du.
Erref. 75982/1

o Durangoko enpresa batek enkofratzailea behar du.
Erref. 75937/2

o Urola Kostaldeko enpresa batek automaten programaizailea behar du. Erref. 75646/4

e Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek, Abadiñoko enpresa boterako soldatzailea behar du. Erref. 76519/1

o Durangaldeko enpresa batek informatika gelarako monitoretutorea behar du.
Erref. 74852/5

o Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek, Durangoko enpresa baterako alikatatzailea behar du. Erref. 74672/3

4 Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek, Durangaldeko enpresa baterako sukaldaria behar du. ErreF. 70363/5

o Urola-Kostaldeko enpresa batek galdaragilea edo soldat-zailea behar du. Erref. 69818/3

## Lana

### ESKAERA

Emakumeak bere burua eskaintzen du orduka, garbiketa lanak egiteko. n- 943 74 22 01

Pertsona arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona edadetuak zaintzeko, egunez zein gauez. Carmen. 678 38 35 61

Emakumea eskaintzen da edadeko pertsonak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia daukat. Mertxe.
tr 943 17 47 70

4 Astean zehar tabernan lan egingo nuke. Esperientzia dut eta euskaraz badakit. a 699 18 32 99

### ESKAINTZA

Emakume bat behor dut goizez haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.n 943 74 10 37 (arratsaldez deitu)

Kamareroa behar da
tr 943 74 42 65

Mintxetako tabernarako pertsona bat behar da. Ordutegi ona.
se 610 50 20 41 edo
tr 678 43 76 33

0 Kamareroa behar da, barran eta jangelan zerbitzeko.
zr 943 74 04 90.

o Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Astelehenetik larunbatera, goizez. tr 943 74 18 24.

o Ileapoinkailea behar da, esperientziarekin. Lan orduetan deitu. Kristina.tr 943 74 43 88.

## Bestelakoak

* Karitasek sehaska bat behor du. Norboitek soberan baclauka, mesedez, ekar dezala.

o Apirilaren 3on autoa utzi nuen Santa Ano kaleko rotondaren goiko parkinean 8:45ean eta arratsaldean kotxera bueltatzeon atzeko parte guztia barrurantz sartuta zeukan. Zerbait ikusi duenak, deitu, mesedez. Arantza
12 686 22 44 38

## SIOPTOSkeltak

♦ Scort Xri zuria saltzen dut llanta zuriekin. 1.200.000 pezeta.
lw 616 26 62 12

4 Peugeot 206 autoa salgai. 0323 BKR Jose Manuel zr 605 75 56 39

♦ Bikientzako Arrue markako kotxea salgai, hainbat konplementorekin. 200 euro. losu. Tr 943 17 70 25.



o Zorionak Ainhoa Lauzirikari, hilaren 8an B urte bete dituzulako. Gurasoen eta Oihaneren partez.



*Zorionak amatxo, hilaren 15ean zure urtebetetzern da-eia. 35 patxo potolo, Astigarragalik, Alex eta Iban.



o Zorionak Nerea Bastida, hilaren 13an 3 urte beteko dituzulako, familickoen partez.

## Papfinillarinpall

e Ingeleseko klase portikularrak ematen dira.sx 605 73 95 34.

o Ingeleseko klaseak ernoten dira Mendaron.
e 943 75 52 09 / 943 74 29 84.

o DBHko ikasleentzat klase partikuiarrak emoten ditut. Esperientzia daukat.tr 943 74 42 06.

## Garajeak

o Gorajea alokatzen dut Kalamua kcrlean.er 943 74 13 82

Garajea salgai Arregitorre kalean. Bi autorentzat du lekua. Prezio interesgarria.m 943 74 00 09

Lokala alokatzen da San Roke kalean.er 943 74 14 36

## aehigliztz

o Ebiebizaza edo logela hartuko nuke abkairuan.m 699 60 06 08

* Pisua alokatuko nuke. Kristina
646 36 09 14

4 Logela alokatzen da, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin.
zr 943 74 88 53



o Zorionak Mikel, hilaren 14an 2 urtetxo egingo duzulako.Gurasoak, aindtxa amamak eta osabaizebak.



o Zorionak Marian, gaur, hilok 12, urteak betetzen dituzulako. Zure seme eta familiakoen partez.



o Zorionak amama Ramoniri, hilaren 14an bere urtebetetze eguna da-eta. Belarritik tirakada mordo bat bre biloba losu, Unai eta Nerean partez.




Zorionak Jon. Hilaren 17an urtetxo bat egingo du. Anaren partez muxu houndi bat.



4 Zorionak Oihaneri, hilaren 10ean 3 urte bete dituelako. Familiakoen partez

# agurra



e Zorionak Eneko Cerezori, gaur, hilak 12, 4 urte bete dituelako. Familiakoen eta anaiaren partez.



o Zorionak Axierri hilaren 13an 7 urte beteko dituelako. Etxekoen partez



e Zorionak Cristina Canderi, ,gaur, apirilak 12, urteak bete dituelako. Gurasoen, ahizparen eta anaiaren partez. Ondo pasatu al duzu So-P un?



o Zorionak Unai, apirilaren 13an urietxo bat beteko duzulako. Etxekoen eta bereziki arreba Ainhoaren parlez.



Zorionak Jokin, hilaren 10ean 10 urte bete dituzulako.Famikaren partez eta bereziki amamaren eta Aitorren partez.



o Zorionak Luziari, apirilaren 9an 8 urte bete dituelako. Famikakoen partez.



o Zorionak Ibai, hilaren 9an 2 urtebco bete dituzulako. Famikakoen partez eta bereziki Nerea eto Unairen partez.



* Zorionak Sergio hilaren 6on 7 urte beteko dituzulako Gurasoen, amamaren eta Anaren partez.



Zorionak Mikel Astigarragari, apirilaren 16an 2 urte beteko dituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.

Zorionak JokiM, hilaren 13an 2 urte beteko dituzulako. Gurasoen, amamaren eta Anaren partez.

## gazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Infonnazio Gunea Kultur Etxean. Bigarren snlairuan. Tel. 943 741 461 Ordutegia: Astelehena-usteurtea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00 lanuthata: 10:00-14:00*

JARD LI ER A K

**Haritzalde**

Parkeen Lagunak Harazalde elkarteak Euskal Herriko hegaztiei buruzko jardunaldiak antolatu ditu. **Egunak: apirilak 8, 9, 10, 11, 12, 13.**

BEKAK

**Kontsumo arloko bekak**

Eusko Jaudaritzak kontsumo arloko prestakuntza eta ikerketarako 4 beka-mota atera ditu: 1. beka, eskolan erabiltzeko materialak landu eta hedatzeko bekak; 2. beka, kontsumitzaileentzako materiak landu eta hedatzeko bekak; 3. beka, Europa mailako kontsumo arloko ikerketa, prestakuntza eta azterlanen lanketarako bekak; Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazioen estatistika-anoksia egiteko bekak. **Epea: apirilak 15.**

SARIAK ETA LEHIAKETAK

**Pintura**

Cruzcampo Fundazioak eta Calahorrako Udalak VII.Pintura Lehiaketa antolatu dute. Gaia hostalaritza ingurukoa izan behor da. **Epea:** ekainak 8.

Literaiura

Bartzelanako Unibertsitateak "Sent Sovt" literatur lehiaketan, gastronomia gai nagusitzat duten prosazko lanak sarituko ditu. Argitaragabeak eta katalanez edo gaztelaniaz idatziak izango dira. Saria 4 zatitan banatuko da eta guztira 24.000 euro banatuko dira. **Epea: ekainak 30.**

**Karikatura eta marrazki lehiaketa**

Euroaren inguruko karikatura eta marrazkien lehiaketa, Santa Cruz de Tenerifeko Udalak antolatuta. **Epea: irailak 30.**

**Donostiako** Orfeoiaren **eta EHUren 2002ko Saria**

Sari honen helburua musika-ikerketa sustatzea eta adoretzea da, beita publikoki ezagutaraztea ere musika-sorkuntzaren munduan nabarmenak izan diren pertsonen lana eta ibilbidea.Ikerketa lanak unibertsitate-jardueran barne hartutako edozein ikuspegi akademikotatik egin ahal izango dira. EpeeLekainak 30.

LAIJA

**Aparejadorea**

Villabonako Udalak aparejadore-lanpostu bat eskaintzen du oposizio-lehiaketa bidez. Aparejodore titulua edo Arkitekto Tekniko titulua eto euskarako 3. Hizkuntza-eskakizuna izatea eskatzen da. **Epea: apirilak 15.**

**Sekretarioa**

Leitzako Udalerako sekretario postu bat betetzeko lehiaketa-oposizioa. Zuzenbiderm, Zientzio Politikoetan edo Soziologian lizentziahJentzat. Euskara jakitea eskatzen da. **Epea: apirilak 17.**




\+ Zer, ahaztuko ginelakoan, ala? Zorionak familiakoen partez.



♦ Valentin Txurruka, martxoaren 27 erretiratu da, 46 urtez Danobaten lan egin ondoren.
Zorionak Valentin1

# acenc'a

## 12 BARIXAKUA

21:011 **Bertso afaria**
Gaztetxean
Sarrera: 12 euro (Langabetuek 9 euro)
22:00 **Zine Emanaldia Emakumeentzat**
"Erin Brockovich" (Gazteleraz)
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea
22:15 **Antzerkia**
"Casa con dos puertas"
Taldea: Impar Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

## 13 ZAPATUA

20:00 **Kontzertua**
"Alerta", "Ainke", "At", "Lor", "Seiurte" eta "Zer"
Gaztetxean

## 14 DOMEKIA

11:00 **IX. Haur Krosa**
Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola
16:30 **Antzerkia**
"Ahatetxo itsusia" (Euskaraz)
Taldea: Gorakada Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

## 15 ASTELEHENA

19:00 **Elgolbarko Izarraren Bazkideen Urteko Batzar Orokorra**
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

## 17 EGUAZTENA

19:00 **Hitzaldi informatiboa**
Bularreko Minbiziaren prebentzioa
Kultur Etxean
Hizlaria: Maria Jesus Michelena, Instituto Onkologikoko doktorea
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## INAUGURAZIOAK

**KZ gunearen inaugurazioa**
Elgoibarren jarriko duten KZgunea apirilaren 16an, martitzenean, inauguratuko da. Ez digute inaugurazio ordua zehaztu. Nafarroa plaza, 1-2. solairuan kokatu dute lokala. KZgunea Interneterako Sarbidea eta Prestakuntza eskaintzen duen zentro publikoen sarea da, Eusko Jaurlaritzak sortu eta sustatutakoa, Euskadiko Udalen lankidetzaz. Ekimen hau Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren barruan dago eta horren bidez informazioaren teknologiak sustatu nahi dira maila guztietan. Zentro guztiek nabigatzeko gela bat eta prestakuntzarako sail bat dute, eta ekipo informatiboak ikasleek erabili ahal izateko.

## ANTZERKIAK

**"Casa con dos puertas" antzezlana**
Gaur, barixakua, gaueko 22:15ean Herriko antzokian Teatro Impar taldeak Calder6n de la Barcaren obran oinarritutako "Casa con dos puertas" antzeziana taularatuko du. Komedia barroko honetan publikoarekiko komunikazio zuzenaz, dantzaz, esgrimaz, ateen arteko jolasez eta batez ere zuzeneko musikaz gozatu ahal izango da. Izenburuak berak adierazten duen bezala, bikoteen arteko istorioak azalduko ditu obrak.

**"Ahatetxo itsusia" txotxongiloa**
Gorakada Antzerki Taldearen eskutik, "Ahatetxo itsusia" txotxongiloa ikusi ahal izango da domekan arratsaleko 16:30ean Herriko Antzokian. Hans Christian Andersenen ipuineko pertsonajea baserriko gainontzeko animaliek egiten dizkioten burlekin aspertuta alde egin eta bere antzeko animalien bila abiatuko da, bidean hainbat pertsonajea bitxirekin egingo du topo.



## ZINE kluba



**"INTIMIDAD"**
Zuzendaria: Patrice Chheau.
Antzezleak: Mark Rylance, Kerry Fox, Timothy Spall.

Urrezko hartza eta emakumezkoen interpretaziorik onena sariak irabazi zituen iaz Berlineko Zinemaldian. Claire azteazkenero joaten da Jayren etxera elkarrekin sexua praktikatzeko, ez dute beste ezer egiten, ezta hitzik elkarri zuzentlu ere. Jayk emaztea eta semeak laga berri ditu eta taberna batean egiten du lan. Behin bere asteazkenetako lagunaren berri zerbait gehiago jakiteko ikusmina piztuko zaio eta Londresko kaleetatik jarraituko du Claire. Zuzendariak era zuzen eta garbian aztertzen ditu filmeko gai nagusiak, inkomunikazioa eta atsekabea.

## BATZARRAK

**Elgoibarko Izarraren batzarra**
Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen bazkideen urteko batzar orokorra apirilaren 15ean, astelehenean, izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 2001eko memoria, diru balantzea eta 2002ko aurrekontua, helburuak eta asmoak aztertuko dituzte batzarrean, besteak beste. Elkarteko bazkide guztiak daude gonbidatuta. Saioa 19:00etan hasiko da.

## TKAPELKETAK

**VIII. Idazlan eta marrazki lehiaketa**
Udal Liburutegiak "VIII. Idazlan eta marrazki lehiaketa" antolatu du apirilaren 23an liburuaren eguna dela-eta. Aurtengo gaia honako hau da: "Eta handitan, zein lanbide...". Marrazki lehiaketan Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko ikasleek hartu ahal izango dute parte, idazlanen atalean, berriz, 5. eta 6. Mailakoek. Lanak gehienez orri batekoak izango dira eta apirilaren 17[8] baino lehen Udal Liburutegian bertan aurkeztu beharko dira. Sari banaketa apirilaren 23an egingo da.

## IKASTAROAK

**Euskaltzaindiaren Araugintza ikastaroa**
Arigerak Euskaltzaindiaren Araugintza ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 6tik ekainaren 5era Iuzatuko da ikastaroa eta 20 orduko iraupena izango du. Klaseak astelehen eta asteazkenetan izango dira 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko Elgoibarko Izarrara zuzendu. Ubitarte 4, behea. 943 74 16 26 (Amaia A.). Prezioa 60 eurotakoa da. 36 euro Iangabetuek.

## 1RTEERAK

**Tenako Bailarara**
Morkaiko Mendizale Elkarteak Tenako Bailarara (Huesca) mendi irteera antolatu du. Apirilaren l9tik 21era bitartean izango da irteera eta izena emateko azken eguna apririlaren 15a da. Autobus bat bete arteko tokia egongo da. Casa de Piedra aterpetxean egingo dute egonaldia pentsio erdian. Bestalde, Errosario kaleko egoitzak berritze lanetan jarraitzen duenez, Kultur Etxeko sotoan aurkituko dituzue morkaikokoak ohiko ordutegietan ( astelehen eta ostegunak 19:00etatik 21:00etara )

## JARDUNALDIAK

**Reiki, barreterapia eta mudras**
Aubixa baserrian hainbat jardunaldi izango dira asteburuan. Reiki jardunaldia bihar larunbata, hilak 13, arratsaldeko 17:00etatik 8:30era izango da. Ondoren igandean, goizeko 10:00etatik 13:30era barreterapia saioa izango da eta 17:00etatik I 9:30era Mudras (Lege unibertsalen armonizazioa) izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu zenbaki honetara: 943 74 17 15.

## KONTZERTUAK

**200 baietz!!**
Horrela du izena Alerta, At, Seiurte, Ainke, Lor eta Zer taldeek apirilaren 13an, Iarunbatean, gaueko 20:00etan hasita Gaztetxean eskainiko duten kontzertuak. Izenburuaren zergatia honako hau da: 200 litro kalimotxo doan banatuko dituzte. Hau da, sarrerak 3 euro balio ditu eta gero dohainik edan ahal izango da kalimotxoa barruan arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Gainera kontzertu amaieran taldeen materiala zozketatuko dute.

## KARTELDEGIA

**ELGOIBAR**
**Herriko Antzokian**
**"Vidocq"**
13, zapatua: 19:30-22:15
14, domekia: 19:30-22:15
15, astelehena:22:15
**"Intimicy"**
16, martitzena: 21:30
18 eguena 22:15

**Unzaga**
**"La habitacin del pgnico"**
12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua: 17:1M-19:30-22:30
14, domekia: 17:00-19:30-22:30
15, astelehena:19:30-22:15
16, martitzena: 19:30-22:15
17, eguaztena: 19:30-22:15

**Rialto**
**"En la ciudad sin limite"**
12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua:17:00-19:30-22:15
14, domekia:17:00-19:30-22:15
15, astelehena: 19:30-22:15
16, martitzena: 19:30-22:15

**BERGARA**
**Novedades**
**"El Florido Pensil"**
12, barixakua: 22:30
13, zapatua: 22:15
14, domekia:19:30-22:15
15, astelehena:19:30
**"E.T"**
13, zapatua: 17:00-19:30
14, domekia: 17:00
**"Italiano para principiantes"**
18, Eguena: 20:00 (Zine Kluba}:



**"VIDOCQ"**
Zuzendaria: Pitof.
Antzezleak: Gerard Depardieu, Guillaume Canet, Inēs Sastre.

1830. Frantziako Carlos X. erregeak abdikatu berri du eta Vidocq, segurtasun nazionalerako burua izandakoa, erahil egingo dute krimen bat ikertzen ari denean. Kazetari gazte hat arduratuko da Vidocq-en nekrologika idazteaz. Lan horretan ari dela hiltzailearen identitatearekin topo egingo du eta polizia modemoaren aintzindari izan zen Vidocqen lan egiteko teknika bereziekin harrituta geratuko da.

N

# erretratu zaharra

2001-Iv-12



Aste honetako erretratua 1937 ingurukoa da. Karson lagun koadrilakoena. Jokalari afizionatuak izan arren, **Ramon Etxaniz Elorzak** esan digunez, desafioak egiten zituztenean, irabazi egiten zituzten.
Honakoak dira erretratuan agertzen direnak:
Zutik: **Fermin Ruiz, Abundio Eguren (t), Jess Bilbao (t), Roke Arregi, Marcelo Ajubita (t), Eulogio Etxeberria,** eta **Jose Gurrutxaga.**
Makurtuta: **Ranuin Etxaniz, Sabino Perea (t), Policarpo Rementeria (t), Jos Zubiaurre,** eta **Bitor Ansola** (kapitaina eta Karson izenaren arrazoia).





***ESKERTZA***

*2002ko martxoaren 27an, 76 urte zituela hil zen*
*JOSE MARIA IPIÑA USABELen*
*emazte eta seme alabek,*
*bihotzez ESKERTZEN dituzte jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara a ertu izana.*





***URTEURRENA***

***ROSARIO ECHANIZ GURRUCHAGAren** oroimenez,*
*launbatean, hilak 13 **URTEURRENEKO MEZA** izango da*
*Maalako elizan arratsaldeko 19:30ean.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik*





***ESKERTZA***

*2002ko apirilaren 2an, 78 urte zituela hil zen*
***NIKOLAS ARRIAGA** REMENTERIAren*
*emazte eta seme alabek,*
*bihotzez ESKERTZEN dituzte jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*


MERINO
Errosario kalea, 11 behea
20870 ELGOIBAR
Telf.: 669 146 967
DENDA BERRIA !
marrazkidun giltzak !
arazo guztientzako plantilak!
HYDROGEL
luga
... al cuidado de sus pies
OINETAKO MONPONKETA
MERINO
JMA
Giltzak egiten ditugu


Z Z Z
Atsedenean eta zure etxeko ehunetan adituak
laxy
LAGUNAK
San Roke kalea, 20
tel: 943 74 44 57
ELGOIBAR
Gipuzkoako hiribidea, 12
tel: 943 17 02 08
ERMUA

# 42 EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI ITZULIA

## Apirilaren 12an

### 1. SEKTOREA

BILIABONA-ELGOIBAR 94 Km

Amaiera Santa Klaran 12ak aldera

ZatOZ bkHdetaren r

reS

tarēl

### 2. SEK'TOREA

ELGOIBAR-ELGOIBAR 15,21cm

Erlojuaren kontrako banakakoa

Hasiera Plaza Handian 15:30ean /amaiera Mintxetan



Henriko antolatzaileak

Babesle nagusia

Elgoidarko Udala

GUREX iIIDE
"9215VVireaT TEI

TXIBRINDULARI ESKOLA
ESCUELA DE CICUSMO

GO RATU
Herreminte Makine febrIket3aileak
Fabrieentes de Mdquina Herremierde
Machine Tqait Manufactureri

Kolaboratzaileak

Trijr ojtilCur
ETXE-TAR

AMENABAR

115 *Uk;ain
41111

irdtlon,s.L

EE R [?:(11.m

11121 FARDNI SYSTEM

ECmtel

2gUlal

GESAY. S A

Arrizabal

ELGOIBAR

ALTURA Y URIA

SUMOFIC

ADUNO

Anchustegui

GRUPO DANOBAT %SP°°L